



**2008ko EKAINAREN 11ko LANGILERIAREN KUDEAKETARAKO ZUZENDARIAREN EBAZPENA, 2007/2008 IKASTURTERAKO IREKI DIREN ZERRENDETAN, 2008ko URTARRILAREN 6ko DEIALDIAREN ARABERA 2008ko URTARRILAREN 14tik MAIATZAREN 20ra BITARTEAN AURKEZTUTAKO ESKAEREI DAGOZKIENAK, ONARTUTAKOEN ETA KANPOAN UTZITAKOEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA ARGITARA EMATEN DUENA.**

**Lehena.-** 2008ko urtarrilaren 6ko deialdiaren bidez ireki ziren Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan, Bigarren Hezkuntzan, Lanbide Heziketan, Hizkuntzen Irakaskuntzan eta Hezkuntza Berezian ordezkapenak egiteko izangaien zerrendak.

**Bigarrena.-** Deialdi horren ondorioz, 2008ko apirilaren 21eko ebazpenak aldatu zituen 2008ko otsailaren 27ko eta martxoaren 5eko ebazpenen bidez argitara eman ziren 2007/2008 ikasturtean ordezkapenak egiteko izangaien behin-betiko zerrendak, 2008ko urtarrilaren 7tik 11ra bitartean aurkeztu ziren eskaeren ondorioz.

**Hirugarrena.-** Zerrenda horiek besterik esan arte jarraitzen dute irekita eta eskaera berriak onartzen dira, sarrera-ordenaren arabera.

**Laugarrena.-** 2008/2009 ikasturterako birbarematze-prozeduran sartu dira 2008ko martxoaren 18ra arte onartu diren eskaerak.

Aipatutako deialdiaren oinarrietan xedatutakoaren arabera,

### **EBATZI DUT**

**Lehena.-** Argitara ematea 2007/2008 ikasturtean ordezkapenak egiteko zerrendetan onartutako parte-hartzaileen behin-behineko zerrenda, baita kanpoan utzitakoen behin-behineko zerrenda ere, arrazoiak adieraziz. Hori guztia 2008ko urtarrilaren 14tik maiatzaren 20ra bitartean aurkeztutako eskaeren ondorioz.

**Bigarrena.-** Zerrenda hau osatzen duten izangaiak sarrera-ordenaren arabera ordenatzen dira, 2007ko abenduaren 11ko ebazpenak aldatzen duen 2004ko maiatzaren 26ko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Langileriaren Kudeaketarako zuzendariaren ebazpenak 5.4. artikulua azken paragrafoan ezarritako baldintzen arabera. 2007/2008 ikasturte honetan deitu zaie, 2008ko urtarrilaren 7tik 11ra bitarteko eskaeren ondoriozko zerrendetan sartutako izangaiak baino geroago.

**Hirugarrena.-** 2008/2009 ikasturterako birbarematze-prozesuaren ondoriozko zerrendak agortuz gero, eskaera martxoaren 19tik aurrera aurkeztu zuten izangaiak deituko zaie, sarrera-ordenaren arabera. Izangai hauei 2009/2010 ikasturterako birbarematze-prozeduran sartuko zaizkie, 0 hizkuntz eskakizunarekin onartuak izan diren izangaiak izan ezik. Izan ere, hizkuntz eskakizunaren baldintza betetzen ez duten izangaiak ez egoteagatik deitzen baldin bazaie sartuko dira 0 hizkuntz eskakizuneko izangaiak birbarematze-prozesu horretara.

**Laugarrena.-** Interesatuak nahi dituzten **erreklamazioak** jarri ahal izango dituzte **2008ko ekainaren 13tik 17ra bitartean, biak barne**, zerrenda honen kontra, Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzetan.

Vitoria-Gasteizen, 2008ko ekainaren 10ean/ En Vitoria-Gasteiz, a 11 de junio de 2008

**LANGILERIAREN KUDEAKETA ZUZENDARIA  
DIRECTORA DE GESTIÓN DE PERSONAL**

**ITZIAR GARAIZAR AGIRRE**